



# LESAKA ETA ITUREN





## LESAKAKO EGITARUA

### UZTAILAK 3, ORTZIRALEA

**22:00etan** Lesakako Musika Bandaren 'Pepito Yanci-Beti Bizi' diskoaren aurkezpena Albistur karrikan (Ziobi atarian).

### UZTAILAK 4, LARUNBATA

**17:30ean** Tantirumairu Euskal Folklore Taldearen dantza ikuskizuna udal pilotalekuan.

### UZTAILAK 5, IGANDEA

**19:00etan** Beti Gazte Lerro Dantza Taldearen emanaldia Plaza Zaharreaan.

### UZTAILAK 6, ASTELEHENA

**10:30ean** Lesakako Erraldoi eta Buruhandien konpartsaren kalejira Lesakako Gaitariekin; Harriondoa-Andra Mari Zaharren Egoitza-Plaza Zaharra.

**10:45ean** txistulariak, soinulariak, trikitilariak kalejiran Plaza Zaharretik abiatuko dira. **11:30ean** herri luntxa Plaza Zaharreaan Elutxa Txarangak girotua. **12:00etan** Herriko Etxetik botako da txupinazoa. Haur tikien danborrada, Elutxa txarangarekin.

**20:00etan** altxaferoa bota ondotik danborrada nagusia abiatuko da, Lesakako Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak eta Lesakako Bandak lagunduriki. **23:00etatik aitzinera** Jon Koldo Gudariak eta Zilibito Records taldeen emanaldiak Plaza Zaharreaan.

### UZTAILAK 7, ASTEARTEA

**08:30ean** ezpata dantzarien meza ixila. Joan-etorria Txistulari taldearen laguntzaz eginen da. **10:30ean** Udaltza bertze agintariekin, ezpata dantzari eta Musika Bandarekin batera, herriko ikurrak aitzinean dituztela, abiatuko dira Herriko Etxetik elizara, Meza Nagusira. Bertan, Lesakako Abesbatzak parte hartuko du. Meza ondotik, Fermin Zaindariaren irudiarekin herri erdigunetik prozesioa eginen da. Ondotik, Udaltza, lehen aipatutakoekin, mezara joan diren moduan jaitsiko da Eskolttikira, Onin errekaaren bi aldeetan egiten den ZUBIGAINEKOA dantza ikustera. Honen ondotik, Bandera-arbola doinuari dagokion ikurrin-agurra zubi gainean. Agur edo dantza bera Plaza Zaharreaan, ikurra Herriko Etxera igan aitzinean.

**18:00etan** Bezperak; Elizara joan-etorria Meza Nagusira bezala eginen da. Bezperetan, Lesakako Abesbatzak kantatuko du. Bezperak akitu ondotik, eta ohiturari jarraiki, herriko dantzariak ZANTZOMONONA ESKU DANTZA, AURRESKUA eta JOTA eta PORRUSALDA dantzatuko dituzte. **19:00etan** Plaza Zaharreaan, bertso saioa, Arrano Elkartek antolatua. Bertsolariak: Maialen Lujanbio Zugasti, Maddi Ane Txoperena Iribarren, Xabat Illarregi Marzol, Andoni Egaña Makazaga, Ekhiñe Zapiain Arlegi. Gai jartzailea: Josu Txoperena Iribarren. **21:00etan** Larrain dantza Plaza Zaharreaan Lesakako Gaitariekin. **22:00etan** Zenezuzkoa. Ibilbidea: Bittiria-Plaza Zaharra. **Ondotik** Rockalean taldearen emanaldi ibiltaria.



**urtek**  
water technologies · uren tratamendua

POTABILIZAZIOA, DESMINERALIZAZIOA, DESKALTZIFIKAZIOA, OSMOSIA, FILTRAZIOA, BERRERABILPENA, DEPURAZIOA, PRODUKTU KIMIKOAK, INSTALAZIOEN MANTENUA

Ongi pasa bestak!!

T. 948 638 188 | urtek@urtek.org | www.urtek.org

**KAGU**  
LIBURUDENDA

LESAKA  
lesaka@legarra.org  
948 638 232

SANFERMINETAN EGUNERO IREKIA  
08:30 - 13:00

FOTOKOPIAK | LIBURUAK | OPARIK  
EGUNKARIAK | ALDIZKARIAK | PLASTIFIKAZIOAK  
ENKUADERNAZIOAK | BILKETA PUNTUA

ERABILI HEMEN ZURE  
GAZTE KULTURA BONUA  
#BonoJovenCultural | bonoculturajoven.gob.es

Ongi pasa bestak!

**hirukide**

Eguzki panelak | Iturgintza  
Industria mantenimendua  
Aire egokitua

T./F. 948 625 395  
Alkaiaga ind. | Alasta, 4-6 Behea | 31770 LESAKA

Ongi pasa bestak!

**DANI**  
INSTALACIONES  
→ TXINTXETA ←  
LESAKA

ELEKTRIZITATEA  
SEGURTASUN KAMERAK  
INTERFONOAK  
SUTE DETEKZIOAK

T. 666 545 069  
daniinstalaciones@gmail.com



**3Hiru Home**

Ongi pasa bestak!

943 930 025 | Prudencia Arbide, 2 • IRUN | www.3hiruhome.com



**AINHOA ALTZUGUREN MITXELENA**  
ABOKATUA

Dibortzioak | Kontratuak | Arazo administratiboak  
BERA | M. 630 972 189 | ainhoaaltzuguren@gmail.com

ONGI PASA BESTAK!

**ARANTXENE**  
MENDI LANAK



**3 NEURRITAKO SU EGURRA SALGAI**

Tel. 646 802 787 | 650 461 778



**ARRANO**  
ostatua

Albistur 13, Lesaka. 948 627 597

KROKETAK, PINTXOAK, BOKATAK,  
ENTSALADAK, PLATER KONBINATUAK  
ta giro bikaina

PRESO TA IHESLARIAK ETXERA!

## UZTAILAK 8, ASTEAZKENA

**08:30ean** Diana Lesakako Gaitariekin. Ibilbidea: Plaza Zaharra-Ote Kalea-Ikastola-Koskontako Bidea-Andra Mari Egoitza. **08:30ean** Peñen gosaria Haizegoan. **10:00etan** Peñen danborrada, Elutxa Txarangarekin. Ibilbidea: Irubide-Plaza Zaharra-Arretxea Kalea-Koskontako Bidea-Antoiu Kalea-Eskol Ttiki-Beheko Plaza-Plaza Zaharra. **12:00etan** betizuak Plaza Zaharrean Elutxa Txarangarekin. **18:00etan** Peñen elkartzea Arratzubin Elutxa Txarangarekin peñen jaitsierarako. **20:30ean** Zutik Elektrotxaranga. **00:00etan** Trikidantz Taldea Plaza Zaharrean.

## UZTAILAK 9, ORTZEGUNA

**08:30ean** Diana Lesakako Gaitariekin. Ibilbidea: Alkaiaga-Gasolindegia-Azkaine Kalea-Antoiu Kalea-Eskol ttiki-Pilotalekua-Plaza Zaharra. **09:30-11:30** KULKI Herri Kirol Jokoak Beheko Plazan. **12:00etan** betizuak Plaza Zaharrean Elutxa Txarangarekin. **14:30ean** Señora Bazkaria Azkaineko emakumeekin ahizpatuta Kasino Jatetxean. Xulufriak Lesakako Sare Feministak antolatuta. Gazte Bazkaria Txosna Gunean. **16:00-19:00** Haur ikuskizunak Eltzeta plazan. Eguraldi txarra egiten badu goiko frontoian izanen da. **17:00etan** eskuzko pilota partidu profesionalak. **19:30ean** Larrain Dantza Plaza Zaharrean Lesakako Gaitariekin. **20:30ean** Me Vale Madre taldearen emanaldia Plaza Zaharrean. **22:00etan** Zezensuzkoa. Ibilbidea: Bittia-Plaza Zaharra. **22:30ean** Petti Txosna Gunean. Ondotik, Hagosilik.

## UZTAILAK 10, ORTIRALEA

**08:30ean** Diana Lesakako Gaitariekin. Ibilbidea Martxanpaita-Biurrana auzoa-Eltzeta karrika-Bittiria karrika-Bittirikoko Plaza-Plaza Zaharra. **10:30ean** Ipuin kontalaria "Izena duen guztia bada" Harriondoa atarian. **11:00etan** Andra Mari Zahar Etxeko lorategian, Bankako Menditarrak. Ondotik, Alondegiko arkupeetan. San Fermin Jubilatuta eta Pentsionisten Elkarteak antolatuta. **12:00etan** betizuak Plaza Zaharrean Elutxa Txarangarekin. **13:45ean** Herri bazkarira kalejiran Elutxa Txarangarekin. **14:30ean** Herri Bazkaria Eltzeta Plazan. Ondotik musika emanaldia Beñat Mitxelenarekin. **19:00etan** Txakaindik jaitsiera Eltzeta Plazatik abiatuta, ZORTZIKO doinuarekin. **22:30ean** Bad Sound System taldearen emanaldia Plaza Zaharrean. Ondotik, Endara DJ. **02:30ean** DJ Trio de Janeiro Txosna Gunean.

## UZTAILAK 11, LARUNBATA

**16:30ean** Arkupe Pilotazaleen Elkarteak antolatuta Memorial Benito Tainta-Lesakako lau eta erdiaren barreneko San Fermin txapelketako finalak udal pilotalekuan. **18:00etan** Anuk eta Elene Txosna Gunean. **19:00etan** Elutxa Txaranga herrian barna. **21:00etan** Berakatz Txosna Gunean. **23:00etan** DJ Aiakate Txosna Gunean. **23:00-00:00** Gaixoa Ni Elutxa Txarangarekin Plaza Zaharrean. **23:00-00:00** DJ Fifi Ta Fefa.



muebles **ORDOKI** alzariak

Ongi pasa sanferminak!

Bittiria, 18 | LESAKA

www.mueblesordoki.com  
info@mueblesordoki.com

948 638 076



**ALZUGARI**  
ESKABAZIOAK

Hondeaketa eta garraio lanak

T. 646 986 448

Nabaz auzoa  
Guillen-borda  
31770 Lesaka

ONGI PASA BESTAK!

Urte | Años  
**50**  
1975-2025

# BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU LESAKAR GUZTIEI!



Zuen konfiantza da gure motorra

GRUPO **bidasoa** TRANSPORTES

[transbidasoa.com](http://transbidasoa.com)



ADMINISTRAZIOA ETA ZERBITZU ZENTRALAK

Alkaiaga ind. Ziobi kalea - LESAKA (Nafarroa)  
Tel. 948 637 901 | [administracion@transbidasoa.com](mailto:administracion@transbidasoa.com)

DELEGAZIOAK

ARABA BARTZELONA BIZKAIA  
GUADALAJARA PONTEVEDRA VALENTZIA

**ITURBENA** ONGI PASA BESTAK  
kafetegia



Koskontako bidea 5, behe - LESAKA

Etorri Lesakako instalaziora, eta gozatu dauden aukerekin!



ONGI PASA SANFERMINAK!  
LESAKAKO LIDAL KIROLDEGIA

T. 948 637 400 • kiroldegia@lesaka.eus  
www.lesakakoudalkiroldegia.eus

**Antoiu**  
OSTATUA  
Ongi pasa Sanferminak!

Goizeko 06:00etatik aitzinera irekia.

**HANBURGESAK  
PLATER KONBINATUAK  
BOKATAK**

Antoiu, 17-LESAKA | 948 63 73 93 - 631 02 79 50

**ORBELA** ASEGURUAK

Mattin Irazoki Zozaia  
Aseguru Aholkularia

+34 608628245  
m.irazoki@orbela.net

3H iru  
ETXE AHOALKULARITZA

IBILGAILUEN TRANSFERENTZIAK

BITTIRIAKO PLAZA, 5 - 31770 LESAKA HURBILTASUNA & ZERBITZUA

## «Sanferminetan gauza aunitz badira, baina egia da Lesakan identifikagarriena ezpata dantzariak direla»

JASONE TELLETXEA MARITXALAR-OLHAIN PLAZA MAIA PROGRAMAKO AZALEAN



Jasone Telletxea Maritxalar eta Olhain Plaza Maia, saritutako lanekin.

### A. Arotzena LESAKA

Egunotan lesakarrek hartu duten sanferminetako programaren azaleko egilea da Jasone Telletxea Maritxalar argazkilaria eta gibeletako azalarena Olhain Plaza Maia, Tantrumairu Ikastolako 6. mailako ikaslea. Biei ezustean harrapatu die lehiaketa irabazteak. Beteranoenak dioenez, «ez nuen erakusketak ikusi eta ez nekien zer lan aurkeztu ziren, eta ez dakizu jendeak nola bozkatu duen. Azkenean, lan honek lortu zuen boto gehien eta hagitik kontent». Gazteenarena, berriz, 133 lanen artean bozkatuena izan zen. «Lehendik 5-6 aldiz aurkeztua nuen eta aurten nire azken saiakera zenez esfortzu handiagoa egin dut baina hala ere ez nuen uste nirea izanen zela bozkatuena».

### Irudi klasikoak

Olhain Plazaren 'Agurra' lanak Zubigainekoan neska baten agurra marraztu du. «Egia erran inoiz ez dut ezpata dantzariak marraztu eta aurten, nire azken saiakera zenez eta ez nekienez zer marraztu, ezpata dantzari bat egitea pentsatu nuen.

Niretzat ez da momenturik bereziena, baina momentu hagitik polita da». Jasone Maritxalarren lanean ere ezpata dantzarien irudi klasikoak ageri da. «Nik banituen bi lan aurkeztuak eta bertzea zen pixka bat ezberdina eta niretzat politagoa ere. Hau klasikoagoa da, ezpata dantzarien hankak eta... Azkenean hori pasatzen da, jendeak erraten du eta denok erraten dugu zerbait ezberdina nahi dugula, baina botoek klasikotara jotzen dute», dio. Halere, Telletxearen ustez, «bai izan daiteke ezpata dantzariak gabeko kartel edo portada bat, zergatik ez? Sanferminetan badira gauza pila bat, baina egia da Lesakako sanferminetako irudirik identifikagarriena ezpata dantzariak dira, inauterietan zakozarrak diren bezala. Agertzen ez badira, badirudi ez direla beste tango edo inauterietarako lanak». Lehendik bi aldiz irabazia du sanferminetako kartel lehiaketa Telletxeak, 2012an eta 2019an, baina ez du urtero aurkeztu: «Duela aspaldixkotik ez nuen aurkeztua. Denbora eskatzen du eta buruan ideia bat izan behar duzu, lantzen hasteko».

**Bestetan dena gustuko**

Bi sortzaileei galdetu diegu sanferminetan gehien eta guttien gustatzen zaienari buruz eta badituzte bere aldeak. Gazteenak dioenez, «dena gustatzen zait ez dago zerbait bereziki gustatzen zaidana, dena hagitx ongi dago». Helduak, berriz, «beharbada harrituko zara, baina gehien gustatzen zaidana zezenak dira», erantzun digu. «Gero eta jende guttiago ateratzen da, baina giro polita izaten da, zezenen aitzakian jendea ere ateratzen da eta eguerdian lehen izaten ez zen giroa izaten da. Hori bai, hunkigarriena San Fermin goizean goizeko ezpata dantzarien «arrankada» izaten da, izugarri polita da eta 11:00etako ere hagitx-hagitx politik dira. Aldiz, faltan botatzen dut kanpoan egindako bertze ekitaldiak. Ez dut horrelako sobera gauza ikusten. Egia da norbait egon behar duela gainean, antolatzen eta prestatzen, eta denok besta egiten gaude, orduan zaila da, inor ez dago horretarako prest». Urtez urte atera dituen milaka argazkien artean zail egiten zaio bat

aukeratzea Jasone Telletxeari, baina hori bai, «San Fermin egunean, zakozarrekin bezala, kamera eta mobilen borroka bat da. Mundu guzia ari da bere tresnekin irudiak hartzen eta denei traba egiten diezu. Gaizki sentitzen naiz, aitzinetik pasatzen naiz, jendeak erraten dizu... gero eta zailagoa da jenderik gabe argazkia ateratzea».

**Dantzariak izandakoak**

Biak dantzariak izanak dira, Jasone «aspaldi». Olhainek, berriz, «lehen dantza egiten nuen baina denbora faltarengatik utzi behar izan nuen. Futbolearen aritzen naiz Beti Gazten, eta musika ere gustatzen zait: pianoa, trikitixa...». Ikastolan, plastika gustatzen bazaio ere, «nahiago dut gorputz hezkuntza». Iruñeko sanferminak ere gustatzen zaizkio Olhain Plazari. Lehiaketako ehun euroko sariarekin, berriz, oraindik ez daki zer erosi, «pentsatzen dut DBHri begira erosiko ditudala gauzak» eta, bereziki, eskerrak eman nahi dizkio «aholkuak eman dizkidan Olatz Rojo gure irakasleari».

BERRI S.L.  
**TXIMISTINDAR**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

ONGI PASA SANFERMINAK! 948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Zalain Ind., 42 Bera

gure baserriko esnearekin  
**LESAKA**  
egindako gazta

ONGI PASA BESTAK!

Tel.: 670 74 95 49 | info@agorleku.eus | www.agorleku.eus

ONGI PASA BESTAK!

**sasoi**  
eraikuntzak

T. 948 451 596 | info@sasoi.eus  
[www.sasoi.eus](http://www.sasoi.eus)

**S M**  
*Saioa Mitxelena*  
ETXEBIZITZEN AHOLKULARITZA

ETXEBIZITZEN BALORAZIO PROFESIONALA

LAGUNTZA ETA AHOLKULARITZA SALEROSKETA PROZESU OSOAN

HOME STAGING

PUBLIZITATEA WEB ORRIALDE NAGUSIETAN

ORDAINSARI MURRIZTUAK

609 057 040  
[www.inmobiliariasaiomitxelena.com](http://www.inmobiliariasaiomitxelena.com)  
nereetxea@gmail.com


ONGI PASA BESTAK!

**GESTETIKA**  
MIGARZABAL  
Ongi pasa bestak!  
Albistur 17, LESAKA - 948 637 280



**E D A R I A K**  
Ongi pasa bestak!  
**MANUEL TABERNA S.L.**  
Bidasoa, 76 - 31780 BERA  
948 63 10 27 670 598 560  
info@tabernaedariak.eus  
www.tabernaedariak.eus

- Estetika
- Hialuronikoa
- Protesiak
- Endodontziak
- Inplanteak
- Hortz zuritzeak
- Azterketa erradiologikoak
- 3D eskaner bidezko diagnostikoa eta adimen artifiziala.

Betiko lekuan eta betiko moduan jarraitzen dugu,  
Besta zoriontsuak opa dizkizuegu!

948637282  
943623997

Antoiu kalea, 7, Lesaka  
Aldapeta kalea, 2, 2.B, Irun

## «Auzolanak izaten ziren gaur eguneko sare sozialak eta berreskuratzea polita izanen litzateke»

LUIS MARI OLAETXEA ALTZUGARAI TXUPINAZOA PIZTUKO DU



Luis Mari Olaetxea, Legarraldeko errekan Da Vinciren sistema erabiliz egin duen zubian.

### A. Arotzena LESAKA

Sanferminei hasiera emanen dien lehen suziria aiereratzeaz Luis Mari Olaetxea Altzugarai arduratuko da. Luis Mari 1958ko martxoaren 27an jaio zen Lesakan eta bertan bizi da gaur egun ere, Nabaz auzoan. Auzolanean egin duen lana eskertu eta auzolana bera aitortu nahi izan ditu Lesakako Besta Batzordeak.

Eta horretan jardun da Luis Mari Olaetxea buru-belarri azken urte hauetan. Horren ondorio dira berreskuratutako hainbat bide, hala nola, Koskontako bidea, Nabazetik Bordaberrirako bidea, Mairuerregeneko bordatik Otsangoko errekarako bidea, Ponpollegiko bidea, Difuntuen bidea... Bereziki aipagarriak dira azkeneko bi hauetan eraikitako egurrezko zubiak, bai eta Berrotarango errekan eraikitakoak. Bideak berreskuratzeaz gain, bertze hainbat lan burutu ditu: ubideak garbitu, eroritako zuhaitz eta adarrak moztu... Lan horiek ezagutzeko txango ttiki bat egin dugu Olaetxearekin, kontu kontari, Be-

rrotaran baserritik abiatu eta errekan beheiti, gaineko aldetik, berak berreskuratutako eta zaindutako bidexkan barrena. Lan hauetan nola hasi zen galdetu diogu Olaetxeari: «Mairuerregeneko bordatik Berrotarango errekarako bide hau Barberebordako Rafaelak egiten zuen, segarekin bidea garbitu eta ubideak egin, baina adin handia zuen. Halako batean, 2018an, erran nion: 'zuk uzten duzunean, nik garbituko dut bide hau' eta handik agudo utzi zuen eta horrela hasi nintzen, bidea garbitu eta ubideak egin. Urte batean 110 ubide egin nituen, Nabaztik hasi eta Alkaiagara bitarte, Baldrungo kaxkotik barrena... bideak ez hondatzeko behar beharrezkoak dira, bertzea ura bidean pilatu eta lohi handiak armatzen baitira. Orain urtean behin errepaso bat egiten dut, hostoak eta zikinak garbitu eta abantaila handia da». Mendian aunitz ibiltzen da Olaetxea eta 2020ko haizetean eroritako zuhaitzek Berrotaranetik bide berdera joaten den bidea moztua zutela ohartu zen.

«Bazterretik bazen bidexka trakets bat, eta hura moldatu nuen, piko-tzarekin eta, harria baitzuen. Hura izan zen berreskuratutako lehen bidea, 2020an. Eta hor, berriki 100 urte egin dituen Alkaiagako Joxe Fagoagarekin amistadea izaten dut eta behin galdetu nion ea Lesakako merkatura etortzeko ohitura izaten ote zuten eta hark baietz, Ponpollegiko bidetik joaten zirela, mutikoa zela bere aitatzirekin merkatura joan eta buelta egiten zuela gogoan zuen. Ikustera joan nintzen eta otea, laharra... 'hau garbitu behar dut!' erran nuen. Hasi nintzen eta 3-4 metro zabaleran oteak eta laharrek moztu, garbiketa egin eta moldatu nuen 2021ean. Semeak eraman zuen Joxe Fagoaga bidea ikustera eta hagitz kontent zegoela erran zidan».

#### «Hau droga bezalakoa da»

Eta hau, Olaetxearen erranetan, «droga bezalakoa da. Joxe Barberok galdetu zidan ea Difuntuen Bidea ezagutzen ote nuen. Garai batean Tellegiko atarira ateratzen zen bide bat zen, Alkaiagatik eta Zalain-Zo-

kotik hildakoak bide horretatik ekartzen omen zituzten Lesakako elizara lurperatzera, hagitz aspaldiko istorioa. Joan nintzen, eta 'imposible!', izugarritzko zuhaitz pila eroriak, otea, ez zen pasorik... Bide polita zen, baina arrunt galdua. Baina hark lagunduko ninduela eta hasi ginen, berak motozerrarekin arbolak moztu, nik aitzurrarekin bidexka moldatu... Kilometro bat eta berrehun metro, bada bidea! Hori 2022an egin genuen». Behin bideak berreskuratuta, «aski da urtean behin edo bitan garbitzea, jendea gehien ibiltzen den lekuetan urtean hirutan ere egiten diat, dena 6-8 kilometro. Maiz eginez gero errazagoa da, uzten baldin baduk urte bat egin gabe, orduan bai lanak! Desbrozadoraren pita hausten duk». Eta aipatutako bide horiez gain, «Koskontako bidea eta Milkurbas deitzen duten bide famatu hori garbitzen ditut».

Luis Mari Olaetxeak dioenez, «hau nire kabuz egiten dut, gustatzen zaidalako eta distrakzio izugarria delako», baina berak ongi oroitara

# EKAITZA

## OSTATUA

ONGI PASA FERIAK!

PINTXOAK | EGUNEKO MENUA | RAZIOAK | BOKATAK | PLATER KONBINATUAK...

948 38 84 96

Plaza Berria, 13 LESAKA

# Domiko

calefacción sostenible

ESTUFAK ETA KALDERAK

Pellet eta egurrean espezializatuak



ONGI PASA BESTAK!

www.domikorenovables.com 639 914 455

# BIDASOA

GURPILAK - GASOLINDEGIAK  
1999. URTETIK

GASOLIOA  
ETXERA  
eramaten dugu

Continental

BIDASOA  
GURPILAK - GASOLINDEGIAK  
GASOLIOA A DOMICULO  
609 446 693  
1.559  
1.167

PARTIKULAR ETA GARRAIOLARIENTZAT  
ZERBITZU ANITZAK

Ibilgailu guztietarako gurpil eskaintza bereziak

24h-ko asistentziak errepideetan



IAT aurreko zerbitzua dohainik

Gasolindegia 24h irekita



609 446 693 - 679 204 872

bidaso@neumaticosbidaso.es

www.neumaticosbidaso.es

Eska ezazu BIDASOA txartela erregaian deskontuak izateko



Alkaiaga Industrialdea  
Ziobi Kalea 6  
31770 Lesaka (Nafarroa)  
948 625 663 - 636 293 125

Ongi pasa  
bestak!



Noain-Eskiroz Industrialdea  
Y Kalea 10  
31110 Noain (Nafarroa)  
948 312 239 - 679 204 872



**ONGI PASA SANFERMINAK!**

T. 948 627 583  
Arretxea 20, Behea  
LESAKA

haurrentzako arropa denda



PELUQUERIA ILEAPAINDEGIA

**Besta onak pasa itzazue!!**

Plaza Zaharra, 26 • Lesaka  
T. 948 63 80 37




TRANSTXAKAIN, s.l.  
JESUS ARAMBURU ALZUGARAY

**MOTA GUZTIETAKO IBILGAILUAK**

**EKOTXAKAIN S.L.**

GAIKAKO HONDAKIN BILKETA

**Gora San Fermin!**

T. 669 840 198 / 948 638 052  
Faxa: 948 627 578  
Otsango Ind. 28 • LESAKA  
info@transtxakain.com



**semper** **autoeskola**

**ESKAINZA BEREZIAKI!**

Ikastaro teorikoa nahiz praktikoa euskaraz!

**- INFORMATU ZAITEZ -**

Eztegara pasealekua, 26 Plaza Berria, 7  
BERA LESAKA  
T. 948 630 298 T. 948 638 299  
e-posta: semperautoeskola@gmail.com  
*ongi pasa bestak!*



AGENTZIA AHOLKULARITZA

*Ongi pasa bestak!*

T 948 637 359 M 688 665 581

BITTIRIAKO PLAZA 8 31770 LESAKA (NA)

ONINAGENTZIA.COM

**KONTABILITATEA  
ZERGAK  
AUTONOMOAK  
LABORALA-NOMINAK-KONTRATUAK  
AHOLKULARITZA JURIDIKOA  
ERRENTA AITORPENAK  
ESKRITUREN TRAMITAZIOA  
(HERENTZIAK, SALEROSKETAK...)  
KONTRATU PRIBATUAK  
GESTORIA LANAK**



**IÑAKI JANARIDENDA**

- ONGI PASA BESTAK -



Arretxea, 12  
LESAKA  
**948 638 287**



zi duen bezala, bereak ez dira auzolanean aritu diren esku bakarrak izan. Horregatik bereziki aipatu nahi ditu «Paxkual Taberna, Joxe Barbero, Danieltzo Tellegi eta Patxi Errandonearen izenak».

**«Borondatez egin edo galdu»**

Bakarren batek erran omen dio lan hauek ez lituzkeela berak egin behar-ko, baina Olaetxeak aipatu digunez, «Lesakak 55 kilometro kuadro ditu eta nik bat oso-osorik hartuta ere, bada mendi eta bide pila ederra, herriko etxeak ezin ditu denak bere gain hartu, ezinezkoa da. Edo borondatez egiten dugu edo galduko dira bideak». Bere ustez, bada jende gehiago lan hauetan ariko litzatekeena, «baina hori udaletxearen eskutik eginen balitz, ofizialtasun edo hierarkizazio horrek ez zuen lagunduko. Baina hiruzpalau lagun gelditu eta bada jendea gibeletik etorriko litzatekeena. Lehenbizi bideen inbentario bat edo egin behar-ko litzateke, eta hor ongi etorriko zen herriko etxearen laguntza, baita segurua egin edo materiala lortzeko ere, eta gero, auzoka taldetxoak egin edo nolabait antolatu. Jende gaztea ere hurbilduko litzateke, horretan baikor nauk!». Auzolana, herrigintza... «Aztertzen hasten bagara, oraindik gure herrietan bizirik ditugunak dira –dio Olaetxeak–, bertze aunitz tokitan erabat galduta dagoena, ez dute ulertzen ere nola ari daitekeen norbere borondatez lanean. Baina lehengo sare soziala hau duk! Elkartzen gaituk 5-6-7-8 lagun, goiz polita pasatu, gosalduta, solastatu... Auzolanean egiten zen ikatza, kisua, horma elur zuloetan... jende aunitz behar zen lan horietarako».

**Da Vinciren sistema duen zubia**

Ibilian ibilian, «Leonardo Da Vincik asmatutako sistema erabiliz» eraiki duen egurrezko zubi bereziraino ailegatu gara. Olaetxearen erranetan, «otomanoek eskatu omen zioten Da Vinciri erraz eraiki eta erraz urratzen zitekeen zubi bat diseinatzea eta halaxe egin zuen, zutaberik erabili gabe, baina zenbat eta karga handiagoa izan gainean, orduan eta azkarragoa den zubia, baina aldi berean, puntu egokian indarrez kolpatuz gero, desegiten dena. Hau, halere, barrenetik tirafondoekin eta segurtatua dago, ez da erraz eroriko». Da Vinci 2.0. Legarraldeko erreka dioen kartela ere paratu dio ondoan. «Erreka ttiki hau hiru izenekin ikusikatu dut mapetan: Berrotarango erreka, Legarraldeko erreka eta Otsangoko erreka. Izenak, bideak bezala, erabiltzen ez baditugu, galdu eginen dira eta hor aberastasun handia dago».

**Sanferminei begira**

Bere garaian Frain peñan ateratzen omen zen Olaetxea, baina orain «bilobekin barraketan» ematen du denbora eta diru gehiena, «Nire adinarekin lasai hartzen dut, ostatuan ez naiz ibiltzen, gauzak ikusterai bai». San Fermin eguna aunitz gustatzen zaio, «meza kenduta!». Peña eguna ere gustatzen zaio ikusteko, «baina parte hartzeko gehiago. Bezpera ere polita izaten zen». Sanferminetan ere auzolanaren garrantzia azpimarratu du, «antolatzeko besta batzordea, peñak, txosnak, ikastolaren ostatua ere auzolanean egiten zen eta egiten da oraindik ere... badu meritua hainbertze urtetan! Hori elkartasun bat da eta izugarritzko balorea da!».



Lesakako  
Udalak  
besta zoriontsuak  
opa dizkizue!





Sanferminetan  
otordu goxoak  
prestatzeko...  
ongi pasa bestak!

Plaza Berria, 10 - T. 948 637 335

asegi asesorías  
Zergalan

Kontabilitate zerbitzuak | Zerbitzu fiskalak  
Lan-aholkularitza | Aholkularitza juridikoa  
Herentzia eta Testamentuak | Datuen babesa  
Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua  
Mugaz bertze aldeko aitopenen kudeaketa  
(langileak eta enpresak)

www.zergalan.es zergalan@asegi.es  
www.asegi.com

ELIZONDO - Baztanberri Pl., 6 | T. 948 581 300

BERA - Eztegarra, 22 | T. 948 631 108

DONEZTEBE - Eliza kalea, 22 | T. 948 450 395

LESAKA - Eltzeta, 3 | T. 948 638 077



ARROZTEGIA · MAKINA ERREMINTA  
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK

Barandak · balkoiak · atearak · hesiak · forja artistikoa



646 774 117  
www.talleresjoisa.com  
talleresjoisa@hotmail.com  
Otsango Ind. 31770 LESAKA



Baikorrek peñako kideak joan den urteko peña eguneko bazkariaren ondotik, Koxkontako atarian. UTZITAKOA

## «Baikorrek peñak bi belaunaldi biltzen ditu orain eta hagitz aberasgarria eta ederra iruditzen zaigu»

BAIKORRAK PEÑA 40. URTEURRENA OSPATUKO DU

**A. Arotzena** LESAKA

1986ko sanferminetako peñen egunean ikusi ziren lehen aldiz Baikorrek peñako ator kuadroan txuribeltzak... Berrogei urte beteko dituzte, beraz, aurten. Orduan sortzaile izan ziren peñako kideek gogoan dutenez, «orduan ez zen gaur egun dauden peña pila izaten... Irrintzi, Kalaxka, Agiñakoren bat, igual Betizuak edo Kilkerrak peñak sortu berriak ziren... Orduan, gu 15-16 urteko gaztetxoak ginen, eta bestak baino lehenago peña horietako batera jo genuen, sartzeko asmotan». Baina ezezkoa eman zieten: «Ez dakigu hemezortzi urte betetzea eskatzen zuten edo, bertzerik gabe, ez zuten nahi gu sartzea. Guk, gure burua neska eta mutil "haunditzat" genuen, baina seguruenik eurek haur mukizu batzuk bertzerik ez zituzten ikusten». Erantzunarekin zapuztu ordez, beraien peña sortzea erabaki zuten. «Hiru kuadrillako gazteak ginen eta hasi ginen bilerak egiten, kioskoko eskaileretan lehenik, taldeko kideren baten etxean, gero Beti

Gaztek Otxogorrienean zuen aretoan...», diote.

Eta peña batek, kideez gain, behar dituen bertze bi kontuak lotu zituzten: «alde batetik izena, hasiera batean pila bat atera ziren eta azkenean biren artean bozkatu genuen, Arkale eta Baikorrek. Eta bertzetik, blusaren koloreak: urdina, gorria, berdea... nahiko hartuak zeuden eta noski, Lesakan lehen peña izan zen eta ordurako ia desagertua zegoen Egurra peñaren kuadroan, kuadro txuri eta beltz ttikiekien egitea pentsatu genuen. Baina ez genuen tela berdina berdina topatu eta kuadro haundixeagoekin egin zen».

Lehenbiziko sanfermin haiek ederki pasatu zituztela gogoan dute, baita ondoko urtetakoak ere, «peña berriarekin harro. Adinak ere laguntzen zuen». Handik aitzinera, urtetik urtera, adintsu bera zuten gazteak joan ziren peñan sartzen, «adinagatik edo bertze peñatan lekurik ez zutenak Baikorrek peñan ongi etorriak izaten ziren eta pixkanaka handitzen joan



zen». Horren lekuko, handik urte batzutara peñan sartu zen kide baten testigantza: «Burutan dut nik, nola nire kuadrilakoak peña batean sartzeko gogoz ginen eta Baikorrakoei galdetzea erabaki genuen. Beraien erantzuna, peñan sartzeko ez zela inorren permisorik behar izan zen. Blusa erosi, bazkarira apuntatu eta lixto! Ze majoak Baikorrakeko gazte haiek! 15 urterekin sartu ginen peñan eta orain, 52 urterekin gustura gabiltza elkarrekin».

### 300 kide baino gehiago peñan

Ordurako, Irubiden egindako urteren baten ondotik, Koxkonta jatetxean hasi ziren peña eguneko bazkaria egiten, baina handitzen handitzen, «300 kide baino dextente gehiago izatera ailegatu ginen, hor nonbait, eta ez genuen denentzako tokirik jatetxe batean. Erabaki mingarriak ere hartu behar izan genituen orduan, lesakarra ez zena, ezin zen bazkarira joan.

Kuadrilla eta familia batzuen barrerean haserreak izan ziren horregatik, baina orduan ez genuen bertze irtenbiderik». Orduan hasi ziren catering bidez egiten peñen eguneko bazkaria, «eguraldiaren arabera, urte batzuetan Irain eskolako arkupeetan, bertze batzuetan Biurrana errekaaren ondoan, Eroskiko pisuen gibeledko aldean... baina orduan mahaiak eta guk plantatu behar genituen, gero bildu, garbitu... besta egun handi batean besta egiteko irrikitan dagoen gaztearentzat lan handi xamarrak ziren eta, gehienetan, jende berak egin behar izaten genuen». Urteren batean peñak ez zuen bazkaririk antolatu eta kuadrillak bakoitza bere aldetik ibili zen. Beharbada horregatik, XXI. mende hasieran, Baikorrak peñan zeuden gazte batzuk beraien peñak sortzen hasi ziren, «garai horretakoak dira Erretiradi, Altxadi, Ziharka... Prozesu natural xamarra izan zen, bakoitzak bere kuadrillarekin edo hurbilagokoekin peña osatzea, baina horien guzieren aita eta ama ere sentitzen gara nolabait», diote irrika. Baikorrak peñako kideen kopurua murriztu zen orduan eta, berriz ere jatetxeetan tokia egiteko modua izan zuten eta Kasinoan egin zuten zenbait urtez.

### XXI. mendean sortutakoak

Baina berriki, berriz ere hazten hasi da Baikorrak peña, «kasu aunitzetan hasierako urteetako sortzaile haien seme-alabak eta beraien lagunekin, sartu dira peñan. Orain erran dezakegu 1970. hamarkadan jaiotako peñakideak eta XXI. mende hasieran jaiotakoak ditugula gehien bat». Adin tarte hori

## KASINO

OSTATUA - RESTAURANTE



*onzi pasa sanferminak!*

Plaza Zaharra · 948 63 72 87  
**LESAKA**

## GORA SAN FERMIN!



*Zure konfiantzazko loradenda, beti bezala aholkatzeko prest!*

Otsango auzoa · **LESAKA** · T. 948 637 826

# JANARI

GURE SUKALDETIK ZURE ETXERA

San Pedro, 24 · 20304 IRUN

☎ 623 116 265  
@janari\_irun

**ZUK PRESTATU,**

**ZUK DISFRUTATU**

Etxe(ra)ko janaria  
Zure partez kozinatzen dugul!  
Menua, karta, tortillak,  
bizkotxoak...



**TRANSPORTES IRIGOYEN**  
ONGI PASTA BESTAK  
629 592 215 · Biurrana auzoa, 1 · LESAKA

**Lesaka - Bera**   
**AUTOESKOLA**  
Ongi pasa bestak!  
Eztegara, 12 · BERA Iturrunzubiko plaza, 8 · LESAKA  
948 630 652 948 637 870

**Gora San Fermin!**  
**amura**  
ILE APAINDEGIA  
BITTIRIAKO PLAZA 1. LESAKA. 948637797

ongi pasa bestak!  
  
**IZARRA**  
OKINDEGIA  
PLAZA ZAHARRA 12~13  
31770 LESAKA NAFARROA  
TEL: 948 637 855

**Zegoxoa**   
GORA SAN FERMIN!  
ONGI PASA BESTAK!  
**BERA** **LESAKA**  
Kanttonberri, 3 Plaza Zaharra, 17  
t. 948 630 381 t. 948 637 294  
**ELIZONDO** **DONZTEBE** **LEITZA**  
Santiago, 47 Zazpigurutze, 4 Landabekoa, 2  
t. 948 580 859 t. 948 451 332 t. 948 610 612

“gatazkarako” bidea izan zitekeen, «baina egia da peñen eguneko bazkariak aparte ez dugula deus egiten urte osoan eta ez dugu eztabaidarako arrazoi handirik. Alderantziz, hain adin ezberdinetakoak elkarrekin izatea peñan, aita eta amak, seme eta alabekin nahasiak, hagitz aberasgarria eta ederra iruditzen zaigu», diote beteranoek.

XXI. mendean jaiotako peñakideen ordezkariak, berriz, hala dio: «Gutikitatik Baikorrak izan gara, aita eta ama biek Baikorrak zirelako. 16 bat urte genituenean gurasoek beraiekin bazkaltzera joateko erraten ziguten. Orduan gurasoekin besta egiten kointziditzeak kristoren lotsa ematen zigun, ez genuen nahi edaten genuela ikustea eta “zahar” giroak ez zigun atentziora deitzen. Gainera, kuadrillakoak elkartzeko ohitura genuenez eta denak Baikorrakekoak ez garenez, urtero bezala, bazkaria egiten segitu genuen. Pandemiaren hurrengo urtean, galdera berriz egin ziguten gurasoek eta ordurako ia lotsak kenduak genituen, gu ere Baikorraren bazkarira joatea polita izanen zela pensatu genuen. Ideia horretatik abiatuta adintsuko gehiagori idatzi genien eta azkenean 20 bat bildu ginen lehenbiziko urte hartan, Kasinon. Hagitz ongi pasatu genuen eta hurrengo urtean ere berriz errepikatu genuen. 2023an ia proposamena zabaltzea erabaki genuen eta Whatsapp talde bat sortu genuen, 16 urtez goitiko “gazte” guziak biltzen zituena. 20rekin hasi zen talde hori gaur egun 74ra zabaldu da. Urtetik urtera haunditzen ari gara».

Beterano eta gazte, ibili eta buelta, berriz ere 160 bat kide izatera

ailegatu dira, eta berriz ere Koxkontan elkartu dira azken hiruzpalau urteetan, «baina jatetxea itxia dagoenez, catering-a ekartzen dugu eta lekua uzten digu Andueza-Arruabarrena familiak. Hagitz eskertuak gaude, nahiz eta bertze gauzetara bideratu behar duten orain eta aurtengoa izanen den horrela egiten dugun azken urtea».

**40. urteurrena, XL neurririk gabe!**

Berrogeigarren urteurrenaren harira zerbait antolatzeke asmotan ibili ziren urte hasieran, mus txapelketaren bat edo bertze zerbait, «baina ez da erraza, azkenean Baikorrak kuadrilla ezberdinek osatzen dugu, ikusi dugunez, adin ezberdinetakoak ere, bakoitza bere mar txarekin... Whatsapp talde bat badugu, kuadrilla bakoitzeko “sekretario” lanak egiten dituen lagun batekin eta hor aipatzen direnak gero bakoitzak bere kuadrillari birbidaltzen dizkio. Denak ados jartzea zaila da».

Azkenean, urteurrena gogortzeko zapiak eta kamixetak bakarrik egin dituzte: **BAIKORRAK 1986-2026, XL Neurririk gabe!** dio leloak eta arrakasta handia izan dute. «Umore pixkot eman nahi genion leloari eta hortaz, 40. urteurrena da, XL zenbaki erromatarretan, eta aldi berean arroparen neurrietako bat... Horrekin jokatzuz, “Beti neurrian”, “Neurriz eta adinez” edo horrelako leloren bat pentsatu genuen, baina azkenean “Neurririk gabe!” aukeratu dugu, beharbada baikorregia. Bakarren batek pentsatuko du erromatarren garaikoak garela, bertzeren batek latina ere badakigula, baina guri ez zaigu inporta, beti baikor!».

**LIDERA**  
HORTZ KLINIKA  
INGURUNE BERRIA ZURE IRRIARENTZAT  
Ortodontzia eta odontopediatria. PADI  
Errehabilitazio Neuro-Oklusala / Dentosofia  
Ahoko kirurgia eta inplantologia | Plasma  
Endodontzia | Hortzetako estetika  
Odontologia orokorra eta hortz protesia | Etab.  
Astelehenetik ortzegunera: **08:00-13:00 | 15:00-20:00** Ortziraleak: **08:00-18:00** Larunbatetan irekia: **08:00-13:00**  
Iturrunzubiko plaza, 9-10 | **LESAKA**  
Tel. 722 662 478 | lidera@horkzklina.es  
@liderahorkzklina | www.lidera.horkzklina.es



**GRUPO MUGA BERRI**

— GESTIÓN INTEGRAL INMOBILIARIA —

*Ongi pasa  
bestak!*

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA BILA?  
**GUK LAGUNDUKO DIZUGU**



### **SUSTAPENA**

KALITATE ETA DISEINUZKO  
ETXEBIZITZA BERRIAK



### **BIGARREN ESKUKOAK**

ETXEBIZITZA HAUTAKETARIK  
ONENA ZURETZAT



### **ALOKAIRUA**

ALOKAIRUAK  
BEHAR BAKOITZERAKO



### **AHOLKULARITZA**

LAGUNTZA OSOA ETA  
PERTSONALIZATUA



GARDENTASUNA  
ETA SEGURTASUNA



HURBILEKO TRATUA  
ETA PERTSONALIZATUA



ESPERIENTZIA  
ETA EMAITZAK



NAFARROA  
ETA GIPUZKOA



*Zure konfiantzazko agentzia*

☎ 948 499 959 | 🌐 [www.grupomugaberri.com](http://www.grupomugaberri.com) | ✉ [info@grupomugaberri.com](mailto:info@grupomugaberri.com)  
Bittiria, 37, behea **LESAKA**

**ITTUNGO**  
HERRIKO OSTATUAK

BESTA ON BATZUK  
OPA DIZKIZUE

📞 948 451 346



ZERBITZUA  
EUSKARAZ

**AINHOA**  
ALTZUGUREN MITXELENA  
ABOKATUA

Dibortzioak | Kontratuak | Arazo administratiboak  
BERA | M. 630 972 189 | ainhoaaltzuguren@gmail.com

Ileapaindegia  
**EIDEA**

Asteartea eta ortzeguna: 09:00 - 14:00  
Asteazkena eta ortzirelea: 15:00 - 20:00  
Larunbatetan: Goizez

Kontsejo, 9 | ITUREN | T. 630 633 445

**ONGI PASA BESTAK!**



**HITZORDUA ESKATU**  
**618 124 374**  
Kontsejo, 9 | ITUREN

*Itziar Urroz*  
ONGIZATE ETA EDERTASUNA

**egurpellet**



PELLET ZAKUAK ETXERAINO

egurpellet.com  
info@egurpellet.com  
T 623 246 300

ONGI PASA  
BESTAK!

**ECHEVERRIA**  
ZURGINDEGIA

Leitza errep. - 31745 ITUREN  
M. 676 393 996 · T. 948 388 455 · F. 948 456 164  
carpinteriaecheverria@yahoo.es

**A+++ PVC LEIHOAK**



**ITURENGO EGITARRAUA**



**UZTAILAK 16  
ORTZEGUNA**

**17:00etan** haurrendako jokoak eta herri kirol saioa. **18:00etan** gaztetxoeren frontenis txapelketako finala. **20:00etan** txupinazoa. **Ondotik**, Mendaur Trikitixa-Pandero eskolakoak herrian barna itzulia egingen dute. **21:00etan** zopak herriko ostatuan. **00:00etatik 04:00etara** J&J estalpean.

**UZTAILAK 17,  
ORTZIRALEA**

**11:00etan** haurren Gran Prix eta egurrezko jokoak. **12:30ean** krosa. **17:00etan** mus txapelketa ostatuan. **18:00etan** txokolatae banatuko dute. **19:00etatik 21:00etara** Xaibor DJ. **21:30ean** paella jatea eta **00:30etik 04:00etara** erromeria Balantza musika taldearekin.

**UZTAILAK 18,  
LARUNBATA**

**10:00etan** plater tiroketa. **12:30ean** pilota partiduak. **14:00etan** herri bazkaria. **18:00etatik 21:00etara** herriari buelta Elektrokela elektrotxarangarekin. **20:30etik 22:00etara** Tximista musika taldea. **22:00etan**, xingar eta xolomo jatea. **00:30etik 04:00etara** gaupasa Tximista taldearekin. **Ondotik**, txoznan, gazteen eskutik, dj sorpresa.

**UZTAILAK 19,  
IGANDEA**

**11:00etan** meza. **11:30etik 13:00etara** zirku tailerra plazan. **12:30ean** herriko dantzarien emanaldia. **18:00etan** herri kirol saioa: euskal timber eta harri altxatzaileak. **19:30etik 22:00etara** Elutxa txaranga gazteen eskutik. **19:30ean** xingar eta xolomo jatea.

**Merkatuko leihorik hoberenak egiten ditugu!**

6 kamara eta 82 mm-ko perfilak

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

Egiturak	Eskailerak	Ateak	Lurrak
Armarruak	Sukaldeak	Egurrezko leihoak	Leiho mistoak

# «Bestak hasten direnetik akitu arte, ahalik eta ekitaldi gehienetan parte hartzen saiatzen naiz»

ENARA ARIZTEGI BEREAU ITURENGO GAZTEA

## E. Iraola ITUREN

Iturengo neska alai eta bizia da Enara Ariztegi Bereau, «lagunekin egotea eta herriko giroaz gozatzea gustatzen zaiona». Saltsera fama du herrian eta irriz aitortu du ingurukoei hori errateko arrazoirik ez zaiela falta: «Jendearekin egotea eta haiei zirikatzea gustatzen zait, beti zerbait egiteko prest egoten naiz eta giro ona sortzea maite dut».

Bestazalea ere badela aitortu du: «Lagunekin elkartzeko aitzakia polita da eta giro berezi hori bizitzea gustatzen zait». Eta besten artean batzuk aukeratzeko eskatuta, Iturengo bestak goraiatu ditu. Ahalik eta gehien zुकutzen ditu egun horiek: «Bestak hasten direnetik akitu arte ahalik eta ekitaldi gehienetan parte hartzen saiatzen naiz. Egunez herriko giroaz gozatzen dut, eta gauez lagunekin ateratzen naiz musika eta dantza artean ongi pasatzer».

## Txikitasunean handi

Herri txikia da Ituren eta Ariztegiren ustez txikitasun horixe da bertako besten bereizgarria: «Sortzen den familia giro goxoa eta hurbilekoa da besten bereizgarria. Denok ezagutzen dugu elkar eta horrek bestak berezi egiten ditu». Gainera, azpimarratu du herri txikia izateak ez duela erran nahi aukerarik izaten ez denik: «Ekitaldi aunitz izaten dira: kirol jarduerak, haurrendako ekintzak, musika, dantzak... denok gustuko zerbait aurkitzeko eta gozatzeko aukera izaten dugu».

Kirol eta dantza zalea izanik, pare bat ekitaldi nabarmendu ditu: «Kirol jardueretako bat frontenis txapelketa izaten da eta urtero parte hartu izan dut. Aurten ez, gazteagoei txanda eman behar baitzaie». Dantza taldeko kidea ere bada, eta igandean izanen dute ikasturtean zehar ikasitakoa



Enara Ariztegi Bereau. UTZITAKO ARGAZKIA

erakusteko aukera: «ilusioz eta mimoz prestatzen dugu herritarren aitzinean eskaintzen dugun emanaldia»

Mahaiaren bueltan ere gozatuko du: «herri bazkaria da bestetako ekitaldi berezietako bat. Adin guztietako jendea elkartzen da plazan, eta giro hagitz polita sortzen da». Bazkal ondoak ere izaten du xarma: «plaza bizi-bizirik egoten da eta ederra da horren parte izatea».

Erromeria eta plazako giroa maite ditu, baina ez du bertzelakorik alde batera uzten: «ostatuko martxa ere gustatzen zait, bestaz bertze modu batera gozatzeko aukera ematen duelako. Azkenean, une bakoitzak badu bere xarma»

Eta biharamunean bestondorik bada, pasatzeko sekretua ere azaldu du: «Ur aunitz edatea, ahal den neurrian lo egitea eta hurrengo egunari umore onez aurre egitea!». Irribarre zabal bat ezpainetan baldin bada, errazagoa izaten baita edozeri aurre egitea.

**AURTIZKO**  
OSTATUA

ONGI PASA  
BESTAK!

Errazioak, eguneko menuak, bokatak,  
pizzak, hanburgesak, plater konbinatuak...

Baja, 18 Aurtitz | ☎ 848 68 05 57 | aurtizkoostatua@gmail.com

**JNF**  
**REFORMAS**  
ZAHARBERRITZEAK

☎ **696 24 61 71**

📍 ITUREN | Ongi pasa bestak!

ongi para  
bestak!



**argiura**

Elektrizitatea | Iturgintza

BIOMASA INSTALAZIOA

PLAKA FOTOVOLTAIKOAK

AEROTERMIA ETA GEOTERMIA

ITURGINTZA ETA ELEKTRIZITATE  
LANAK OROKORREAN

609 614 214 | Errotaldea Ind. (Aurtitz) ITUREN



**ITURENGO UDALAK**

besta zoriontsuak opa dizkizue  
herritar eta bisitari guztiei

Uztailaren 16tik 19ra



ERASO  
SEXISTARIK  
EZ!



MUGAK ONARTZEAREN  
**PLAZERAZ  
GOZATU**

**Jaietan,  
planik onena  
errespetua  
da beti**

#ErrespetuaDaPlana



Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



**NAVARRA** ❖ **NAFARROA**  
Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua